

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak 11,3 milioi euro jarri ditu Tafallako hegoaldeko saihebiderearen I. fasea gauzatzeko

Lanak urtearen amaiera aldera hastea aurreikusten da, eta 15 hilabetekoak izango dira

Asteazkena, 2018.eko uztailak 18

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran akordioa bat onartu du Herri Lanetako zuzendari nagusiari baimena emateko Tafallako hegoaldeko saihebiderearen I. fasearen obra-kontratua egiteko. Lanak egiten aurtengo azaroan edo abenduan hasiko dira, eta 15 hilabetez luzatzea aurreikusten da; lanen balioa gutxi gorabehera 11.300.422 eurokoa da, BEZ barne.



Tafallako hegoaldeko saihebiderearen I. fasearen proiektuaren planoak.

Baimen hori ematea beharrezkoa da hainbat urtetarako gastua izanik. Zehazki, 50.000 euro 2018ko aurrekontutik ordainduko dira; 8.218.488 euro 2019ko aurrekontutik; eta 3.031.933 euro 2020kotik.

NA-132 errepidearen bitartez, Nafarroako erdigunearen mendebalde-ekialdea egituratzen da. Lizarran hasi eta Zangozan amaitzen da, eta Erdialdeko herri ezberdinak komunikatzen ditu. Gainera, Foru Erkidegoko gaitasun altuko hiru bide nagusiren arteko konexioa eskaintzen du: A-12, AP-15 eta A-21.

Gaur egun, NA-132 errepideak Tafallako hirigunea zeharkatzen du, eta, bertan, auto-ilara garrantzitsuak sortzen direnez eguneko ordu jakin batzuetan, ekialde eta mendebalde arteko eta alderantzizko joan-etorriak egiteko denbora gehiago behar izaten da. Eta garrantzitsuena da Tafallako herritarren bide-segurtasunean eragina duela.

Saihebidere berriarekin Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzentzaileko (2010-2018) 189. jarduera gauzatu da; plana Nafarroako Parlamentuak onartu zuen 2010eko urrian. Bidea bi fasetan zatitu da, I. Fasea eta II. Fasea, proiektuak idazte eta obrak gauzatzeko aldera.

Obren deskribapena

Proiektuaren barnean, trazadura berriko errepidea eraikiko da, NA-132 (Lizarra-Zangoza) eta NA-6140 (Tafalla-Miranda Arga) arteko egungo elkargunean hasi eta N-121 (Iruña-Zangoza) errepidearekin konektatzen den

lekuan amaitu arte, AP-15 autopistarekiko bidegurutzearen inguruan. Saihesbidearen hasiera nahiz amaiera biribilgune bidezko elkargune eran egingo dira.

Halaber, proiektuaren barnean, beste biribilgune bat sartzen da La Nava industrialdean, N-121, NA-8602 (Olitoko zeharbidea) errepideen eta poligonorako sarreraren arteko elkargunea konpontzeko.

Saihesbideak guztira 2.850 m-ko luzera izango du eta 3,5 m-ko 2 errai eta 1,5 m-ko bazterbideak bi bazterretan. Lubeten inguruan, m 1eko bermak jarriko dira bazterretan; aldiz, erauzketa-zonetan, 2 m-ko zabalerako arekak gehi m 1eko bermak erauzketaren oinean. Biribilguneen sekzio tipoa bakoitza 4,5 m-ko bi erraik osatzen dute, 1,5 m-ko kanpoko bazterbidearekin, 0,5 m-ko barrukoarekin eta 0,75 m-ko kanpoko bermarekin. Bide-zoruan, 15 cm-ko nahasketa bituminosoa jarriko da eta 20 cm-ko zementu-zorua, hobetutako eta E3 motako zabalgunearen gainean.

Bidearen zeharkako iragazkortasuna bermatu eta barrera efektua ahalik eta gehien gutxiagotzearren, hiru egitura proposatu dira maila ezberdinean, eta, horri esker, errepide berria gurutzatu ahal izango da dagoen bide-saretik. Goiko bi pasabide dira, bat 0+690 pk-n eta bestea 2+660 pk-n, eta beheko pasabidea 2+020 pk-n.

Proiektuan hamaika bide eta kaltetutako hainbat zerbitzu berrituko dira, saihesbidearen trazadurak eragozteagatik: aireko 3 linea elektriko, telefoniako 5 kanalizazio, gas-sarearen 3 afekzio, Mairagako Mankomunitateko hornidura-sarearen 3 afekzio, euri-uren hornidura-sarearen afekzio 1, Aguacanal-eko ureztatze azpiegituraren 6 afekzio, Ureztatzaileen Komunitatearen ubide-sarearen 4 afekzio eta argiteria-sarearen 2 afekzio, bat Tafallako Udalekoa eta bestea Audenasarena.

Obra osagarri hauekin, soinutik babesteko 300 m-ko luzerako eta 3 m-ko altuerako pantaila jartzea pentsatzen da saihesbidearen enborrharen eskuineko aldean, 0+225 eta 0+52 pk artean; halaber, argiak jarriko dira N-121 errepidearekiko elkargunean eta La Nava poligonoarekiko elkargunean.